



OHARRA:

Coronabirusa dela eta, egoera berezian aurkitzen gara. Konfinamendu egoeran gaude denok, eta itxura guztien arabera, ekaina aldera arte horrela jarraituko du egoerak, hortik aurrera ikusteko dago. Eta jakina denez, egoera honek zuzenean eragiten dio Aizarnan ospatzekoa zen Eskola Txikien jaiari.

Guraso eta irakasleei egindako galdeketan jasotako emaitzak kontuan izanda, eragile desberdinen balorazioak jaso ostean eta egoera ziurgabe honek sortzen dizkigun eragozpenak ikusita, Aizarnako festaren Talde Eragileak honako erabakia hartu du: Aizarnan egitekoa zen festa 2021eko ekainera atzeratzea.

Festa ganoraz, ilusioz eta ikasle, irakasle eta gurasoekin festak eskatzen duen giroa behar bezala egiteko eta zuek guztiokin batera egun zoragarri bat ospatzeko aukera egokiena ikusten da hurrengo urtera atzeratzearena.

Orain egin dezagun eten bat, helduko diogu berriro lanketari eta jarriko gara berriz ere harremanetan zuekin aurrerago. Jarraituko dugu!

Animo denoi!

Antolakuntza Batzordea